

Segurtasun eza



JUNE FERNÁNDEZ
KAZETARIA



ANTTON OLARIAGA

Ispilu bat jarri digute etxeko atarian, eskailerako hormaren goialdean. Boroibil erdi formaduna, kotxeetako atzerako ispiluen antzekoa. Ustekabez harrapatu gaitu presentzia berri eta arrotz horrek. Nahiz eta ez den kamera bat, gainean “Anaia Nagusiak zaindu egiten zaitu” idazteko gogoia sentitu dugu. Gure lehenengo hipotesia izan da norbaitek ezusteko bat bizi eta gero tramankulu hori instalatzeko eskatu duela. Agian ezezagun baten bortxaketa saiakera. Agian bikote ohi jazarlea atariko bazter ilunetan ezkutatuta agertu zaio. Imajinatutako eszenetan biktima emakumea da eta erasotzailea gizona.

Laster gure bizilagunak –bera ere emakume gazte eta feminista– watxapeatu dit: “Aizu, hau eguerdian ez zegoela esango nuke...”, eta ispiluaren argazki bat. Esan diot ni ere ohartu naizela eta gogaitu nauela. Orain arte sumatu ez dugun arriskuaz abisatzen digu. Hauxe erantzun dit: “Nik ere inoiz ez nuen pentsatu atarian zer edo zer txarra gertatu ahal zitzaidanik. Ispilu madarikatua agertu arte!”.

Etxeko nagusiari idatzi diogu. Bere erantzuna: “Ez da ezer gertatu. Helburua da zonalde itsu guztiak ikustea, segurtasun gehiago sortzeko”. Ederra. Alokai-

ruan bizi gara auzoko gehienok eta gure ugazabek erabaki dute gure onerako dela. Erabaki paternalista horrekin, ordea, kezka berri bat sortu digute. Hobe esanda, mamu bat. Emakumeok ondo baino hobeto ezagutzen dugun mamua, alegia: sexu ikara. *Argia*-ko 2014. zenbakian, *Kontuz ibili* artikuluan idatzi nuen, gizarte patriarkala bortxaketaren mamuaz baliatzen da emakumeok kontrolpean mantentzeko, dependentzia eta beldurra etengabe sustatuz. “Ernel Kontuz ibili!”, esaten dit egunero ispilu nazkanteak.

Baina testuingurua ulertzeko datu bat falta zaizue: Bilboko San Frantzisko kalean bizi naiz. Turismo bulegoak orain dela gutxi arte hona ez etortzea aholkatzen zien atzeritarrei, arriskutsua omen da eta. Hiriko gizatzarrak bizi gara hemen, turismo saileko irudi ederretan inoiz agertzen ez garenak: etorkinak, ijitoak, jonkiak, prostitutak eta maritxu edota soropil mordoa. Bronx bilbotarra. Ghettoan ordena mantentzeko ertzainez eta udaltzainez josita dago auzoa, baita segurtasun kamerez ere. Poliziek lan asko dutela pentsa genezake, baina nik beti berriketan umoretsu ikusten ditut. Noizbehinka gaztetxo magrebtarren bat zirikatzen dute, baita portalera sartu ere

kamerak han barruan gertatzen dena grabatu ez dezan.

Sanfranko auzo elkarte batek “segurtasun gehiago” eskatzen du, lapurretei eta trapixeoei aurre egiteko. Boceramaile batek zera esan zidan SOS Arrazakeriako militante nintzela: “Uler ezazu atso batek plaza gizon beltzez beteta ikusi eta segurtasun eza sentitzen duela”. Bestetik gizarte mugimenduen koordinakundeak auzoaren estigmatizazioa, gizarte bazterkeria egoerak, poliziaren gehiegikeriak eta kaleko hezitzaile falta salatzen ditu, eta *Munduko arrozak* bezalako ekimen ederrak antolatzen ditu auzoaren aniztasuna eta elkarbizitza ospatzeko. Bien kartelak ikus daitezke gure kaleetan, bakoitza bere aldarriekin. Azken boladan beste mezu bat ere agertu da hormetan pintatua: *Etorkin gehiegi*, euskaraz. Katixa Agirrek esan bezala, *basquewashing*.

Sexu ikara + segurtasun ezaren mitoa = kontrol soziala, xenofobia eta sentsazionalismoa. Bi nobedade: 1. Atarian ispilua jarri diguten egun berean, Ana Rosaren programako kamera bat ibili da auzotik bizilagun txuriei narkoei eta etorkinei buruz galdezka. 2. Bilbon VOXen egoitza Sanfranken omen dago. ●